

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**GATAZKEN BALIO HEZITZAILEA LEHEN HEZKUNTZAN:
BERDINEN ARTEKO GATAZKAK KUDEATZEKO ESTRATEGIAK
ETA TEKNIKAK GARATZEKO ESKU-HARTZEA**

ERANSKINAK

Egilea: Leire Azueta Portillo

Zuzendaria: Gorka Etxebarria Elordui

Leioan, 2019ko maiatzaren 30ean

AURKIBIDEA

1. eranskina. Esku hartzearen diseinua eta programazioa.....	3
1.1. Taula. Esku hartzearen diseinua	3
1.2. Taula. Esku hartzearen programazioa.....	4
2. eranskina: Esku hartzearen saioren garapena.....	5
2.1. Baliabidea: Ustezko otso maltzurra.....	26
2.2. Baliabidea. Mundu lasterketa pista zatiak.....	27
2.3. Baliabidea. Laranja antidotoa	28
2.4. Baliabidea. Autobus matxuratua	29
3. eranskina. Ebaluazio tresnak	30
3.1. Tresna: Erregistro orria	30
3.2. Tresna. Ebaluazio errubrika	31
3.3. Tresna. Auto-ebaluazio galdetegia	33

ERANSKINAK

1. eranskina. Esku hartzearen diseinua eta programazioa

1.1. Taula. Esku hartzearen diseinua

Blokeak	Edukiak	Konpetentziak	Helburu espezifikoak	Saioak
Emozioen kudeaketa	Autoezagutza	Komunikatzen ikasi. Izaten ikasi.	Emozioen kontzientzia eskuratzea eta emozio bortitzak eta bulkadak kontrolatzeko estrategiak garatzea.	1.saioa
	Autorregulazioa			2.saioa
				3.saioa
Pertsonen arteko komunikazioa	Asertibitatea	Komunikatzen ikasi. Elkarbizitzen ikasi.	Norbere emozioak, interesak eta beharrak besteak mindu gabe adierazten eta besteak zer pentsatzen duen ondo ulertzen ahalbideratzen duen komunikazio gaitasuna sustatzea.	4.saioa
	Entzute aktiboa			5.saioa
	Enpatia			6.saioa
Lankidetzan aritzeko prozedurak	Kooperazioa	Komunikatzen ikasi. Elkarbizitzen ikasi..	Gatazkan inplikaturiko aldean helburu komunak identifikatzen eta bi aldeak aseo dituen kooperazio jarrerak bultzatzea.	7.saioa
	Talde kohesioa			8.saioa
				9.saioa
Gatazkak kudeatzeko prozedurak	Gatazken analisisa, interesak eta jarrerak	Komunikatzen ikasi. Elkarbizitzen ikasi. Ikasten eta pentsatzen ikasi. Egiten eta ekiten ikasi.	Adostasunak lortzeko negoziazio kudeaketa prozesuak ezagutzea eta irtenbide asegarriak eta sortzaileak bilatzen ikastea.	10.saioa
	Negoiazioa			11.saioa
				12.saioa
Itxiera	Talde-kohesioa Autoebaluazioa			13.saioa

1.2. Taula. Esku hartzearen programazioa

Emozioen kudeaketa			Pertsonen arteko komunikazioa		
1.saioa	2. saioa	3. saioa	4. saioa	5. saioa	6. saioa
-Sarrera - <i>The Bridge</i> bideoa	- <i>Como cazar sombras</i> ipuina -Bihotz zimurtua	-Erlaxazioa	-Rol playing: Nola esango nioke...?	-Entzuten al didazu? -Esandakoa berresten	- Zer ikusten duzue? -Ustezko otso maltzurra

Lankidetzan aritzeko prozedurak			Gatazkak kudeatzeko prozedurak		
7. saioa	8. saioa	9. saioa	10. saioa	11. saioa	12. saioa
- Laukiak eraikitzen	-Mundu lasterketa -Lurralde urdina	-Jolas kooperatiboa - <i>Crazy carrot</i> bideoa	-Laranja antidotoa	-Autobus matxuratua	-Nora goaz?

Itxiera
13. saioa
-Puzzle erraldoia - Autoebaluzioa

2. eranskina: Esku hartzearen saioen garapena

1. SAIOA:		Zer dira gatazkak eta nolakoa naiz ni gatazken aurrean?	
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none">- Gatazka hitzaren esanahia eta osagarri diren elementuen gaineko hausnarketa egitea.- Norberak gatazken aurrean zein jarrera hartzen duen hausnartzea.		
Edukiak	<ul style="list-style-type: none">- Autoezagutza		
METODOLOGIA			
Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gela	<ul style="list-style-type: none">- “The bridge” bideoa (Youtube, 3 min) https://www.youtube.com/watch?v=ZgaidCmzfHk
Garapena:			
<p>Irakasleak galdetu egingo du zer esan nahi duen “gatazka” hitzak eta arbelean euri zaparrada idatziz joango da. Eman ohi diren definizioak honako hauek dira: borroka, eztabaida, arazoa, haserrea... Bide batez, ikasleen aurre ezagutzak jasoko dira.</p> <p>Ondoren “The bridge” bideoa ipiniko da eta horren gaineko hausnarketa egingo da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Zein da gatazka? (Interes eta beharren talka)- Nortzuk hartzen dute parte? (parte hartzaileak)- Zer nahi dute? (Interesak eta beharrak)- Zer sentitzen dute egoera horren aurrean? (Emozioak)- Nola dakizue hori sentitzen dutela? (Hitz bidezkoa ez den hizkuntza)- Zer egiten du animali bakoitzak gatazkaren aurrean? (Jarrera estiloak)- Zer jarrera iruditzen zaizue eraginkorrena? Zergatik?- Zer animalarekin identifikatzen zara zu? (Autoezagutza) <p>Sortzen den eztabaidaren arabera galderak gehituz edo moldatuz joan daitezke. Hausnarketa giroa sortzen ez baldin bada, azkenengo galderarekin batera identifikatzen diren animalien marrazkia egiteko eskatu al zaie eta ondoren aurkezpena egin daiteke, bakoitzak animali horrekin zergatik identifikatu den azaldu dezake, eta jarrera hori izan duen gatazka egoera edo adibideak aipatzeko eskatu al zaio.</p>			



Oharrak:

Agerian jarri behar da gatazkak positiboak edo negatiboak izan daitezkeela, guk aukeratu dezakegu baterako edo besterako bidea. Jakin egin behar dugu gatazkak alderdi positiboak ere izan ditzaketela. Adibideak: harremanak hobetu (kooperazio jarrera izan duten animalien harremana bezala), ikuspegiak argitu (interesak eta beharrak adierazteko aukera), irtenbideak bilatu eta egoerak hobetu (adibidez, zubi zabalago bat eraiki)...

Era berean, azaldu behar da, askotan sentitzen duguna (haserrea, amorrua, sumina, frustrazioa...) onartzea, kanporatzea eta behar bezala adieraztea kostatu egiten zaigula. Baina emozio horiek kontrolatzen ikasi behar dugula. Hurrengo saioetan horiek kontrolatzeko garrantzia eta teknikak ikusiko ditugula azaldu ahal zaie.

Bibliografia:

- **Bideoa:** Ting Chian Tey (2010). *The bridge*.

2. SAIOA:	Itzalak nonahi		
Helburu didaktikoak	- Emozio bortitzak kontrolatzearen beharraz jabetzea.		
Edukiak	- Emozioen autorregulazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak LH-4	Denbora 60 min	Espazioa Gela	Baliabideak eta IKT tresnak - Orri zuriak - Como cazar sombras ipuina

Garapena:

Lehenik eta behin “Como cazar sombras” ipuin kontaketa egingo da. Ipuinean, itzalaren metafora erabiltzen da haserrea irudikatzeko. Haserretzerakoan, itzal handi bat hazten zaigula azaltzen da. Oihuek, irainek, kolpeek... itzala elikatzen dute eta itzala oso handia egiten bada gutaz jabetu daitezkeela azaltzen da. Itzalak ikustearen eta garaiz harrapatzearen garrantzia azpimarratzen da ipuineko kontakizunaren bidez.



Egokiena, ipuin kontaketa egitea da gertakizunak antzetzuz eta noizean behin ikasleei galderak eginez eta parte hartzeko aukera emanez. Era honetan, kontakizuna landu nahi ditugun edukietara bideratzeko aukera izango dugu.

- Zuek ikusi dituzue horrela itzalik? Non? Zer gertatu zen?
- Zuek noizbait izan duzue horrelako itzalik? Zer gertatu zen? Zer sentitzen duzue itzala handitzerakoan?
- Zer egin dezakegu itzalak harrapatzeko?

Hemen ohikoa da erantzunen artean, barkamena eskatzea ateratzea. Argi utzi behar da, norbait mintzean edo norberak izandako jarrera egokiena izan ez dela pentsatzean, barkamena zintzotasunez eskatzea ondo dagoela. Baina besteak ez du gure barkamena derrigorrez onartu beharrik, aukera bat da. Era berean, barkamenak ez du inoiz gertatutako guztia ezabatzen. Zentzu honetan, “Bihotz zimurtua”-ren dinamika egin daiteke.

Bihotz zimurtuaren dinamika egiteko hobe da klasean izandako liskar erreal bat kontuan hartzea eta liskarrean aritutako ikasleak ateratzea (edota aukera izanez gero, liskarraren momentu berean egitea ezin hobeto legoke). Ikasleak borobil batean jarriko dira. Irakasleak, ezer esan gabe, hauen izenak orri zuri batean idatziko ditu.

Jarrera oldarkorra izan duen ikasleari erdira ateratzeko eskatuko zaio. Orria eman eta zimurtzeko, bola bat egiteko, botatzeko, ostikadak emateko eta zapaltzeko eskatuko zaio. Ondoren, gainerako ikasleek berak esandako lizunak eta oihuak esango dizkiote eta honek errepikatuko ditu (itzal handien menpe daudela antzetzuz).
Ikasle bakoitzari nola sentitu den galdetuko diogu.



Amaitzeko, erdian dagoen ikasleari orria irekitzeko eta bertan dauden izenak ozen irakurtzeko esango zaio eta ostean orria hasieran zegoen bezala jartzeko eskatuko zaio. Ezinezkoa denez, orri zimurtuak zer esan nahi duen hausnartzea eskatuko zaie.

- Zer irudikatzen du orri zimurtu honek? (bihotza zimurtzen zaigula, harremanak apurtu direla... ohikoak diren erantzunak)
- Orria berriro zegoen modura bueltatu daiteke? Eta barkamena eskatzen badiogu? (Eztabaida)

- Zer egin daiteke egoera horretara ez heltzeko? (Itzalak kontrolatzearen garrantzia azpimarratu eta hurrengo saioan emozio negatiboak erregulatzeko bideak aztertuko ditugula azalduko zaie)
<p>Oharrak:</p> <p>Argi geratu behar da, itzalak kontrolatzea ez duela esan nahi haserrea ekidin behar denik. Haserretzea normala eta naturala da eta ez da gaiztoa izatearen sinonimoa. Itzala edo haserrea kontrolatzea, norberarentzat eta besteentzat arriskutsu izan daitezkeen jokaeren eta ekintzen kontrola izatea esan nahi du.</p> <p>Era berean, ikasleak emozio, pentsamendu eta portaeren artean dagoen loturaz jabetzea garrantzitsua da. Emozioek jokabideetan eragiten dute eta jokabide horiek, halaber, emozioetan. Biak pentsamenduaren bidez erregula daitezke.</p>
<p>Bibliografia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ipuina: Gonzalez, E. (2016) <i>Como cazar sombras</i>. Educo. - Bihotz zimurtua dinamika: Sanchez, A. eta Sanchez, L. (d.g.) <i>Antiprograma de educación emocional. Sentir en primera Persona</i>. Madrid: Wolters Kluwer S.A.

3. SAIOA:	Erlaxazioa		
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emozioen kontzientzia garatzea - Emozioak eta pentsamendu negatiboak kontrolatzeko eta emozio positiboak eragiteko estrategiak garatzea. 		
Edukiak	- Emozioen autorregulazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gimnasioa	Musika lasaia
<p>Garapena:</p> <p>Gimnasia joango gara eta ikasleak espaziotik sakabanatuta, gorantz etzanda eta begiak itxita jarriko dira. Ondoren, irakasleak, izandako gatazka batean pentsatzeko eskatuko die eta momentu horretan sentitu izan zituzten emozioen kontzientzia hartzeko honako galdera hauek egingo zaizkie: zer gertatu zen? nortzuk zeundeten? Zer sentitu zenuen? Zer nabaritu zenuen gorputzean? Nolakoak dira zure bihotz taupadak egoera hori gogoratzean? Eta zure arnasa? Nolakoa zen zure itzala? Saiatu xehetasun guzti horiek gogoratzen eta jarraian, haserrea baretzeko teknika batzuk ikasiko ditugu.</p>			

Horretarako, isiltasuna eta arnasketa sakon eta lasaia mantentzea ezinbestekoa dela esango zaie. Sudurretik arnasa hartu eta ahotik botatzeko esango zaie. Erlaxatzerakoan burua ere lasaitzeko, buruko pentsamenduak modu libre batean albo batera uzten saiatzeko eskatuko zaie.

Musika lasaia ipintzea ere komenigarria izan daiteke ikasleak giroan sartzeko. Erlaxatzeko metodo ezberdinen artean, Jacobson metodoa erabiliko dugu, muskuluen tentsioan eta distentsioan oinarritzen dena. Modu mailakatu batean gorputzaren erlaxazioa bilatuko dugu atalez atal, ondorengo ordena jarraituko da: aurpegia (begiak,



sudurra, ahoa, ezpaina, mihia, lepoa...), eskua, besoak, oinak, hankak, abdominal zonaldea, bular aldea... Atal bakoitzean zentratuko gara eta une batez bertako giharra ahalik eta gehien kizkurtuko dugu bi edo hiru bider.

Ondoren eta pixkanaka erlaxatuz tentsioa giharretik nola desagertzen den antzemango dugu.

Erlaxazio saioa amaitzerakoan, arnasa sakon hartu, begiak ireki, besoak eta hankak poliki mugitu gorputza luzatu eta bortizkeriarik gabe pixkanaka altxatzeko esango zaie.

Amaitzeko, borobilean bildu eta galdera hauen inguruan hausnartuko da:

- Nola sentitzen zarete?
- Nabaritu duzue aldaketarik zuen gorputzean hasieran eta erlaxazioa egin ondoren?
- Haserre gaudenean, zer sentitzen dugu gorputzean? Nola sentitzen ditugu giharrak?
- Baliagarria izan daiteke haserre gaudenean lasaitzeko denbora hartzeak?
- Zer beste teknikak ezagutzen dituzue? (arnasketa, musika entzutea, korrika egitea, marrazkiak egitea...) Erabiltzen al dituzue teknika horiek zuen burua lasaitzeko?

Oharrak:

Autorregulazioari esker, emozioen kontzientzia hartzen dugu eta egoera horretan nola jokatu dugun erabakitzeke gai izango gara.

Behar izanez gero, erlaxazio saio gehiago egin daitezke teknika desberdinak landuz: arnasketa gidatuak, masaje erlaxazioak, irudikatze erlaxazioak... Hoberena irakasleak erlaxazio saioa gidatzea da, baina nahi izanez gero, youtuben dauden erlaxazio saio hauek ere erabili daitezke:

- <https://www.youtube.com/watch?v=yCtr8aeloN0>

- <https://www.youtube.com/watch?v=z8jHYva7oGw>

Bibliografia:

- **Erlaxazioa:** Sanchez, A. eta Sanchez, L. (d.g.) *Antiprograma de educación emocional. Sentir en primera Persona*. Madrid: Wolters Kluwer S.A.

4. SAIOA:	Nola esango nioke?
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none">- Komunikaziozko jokaera estiloak ezagutzea.- Jokaera asertiboa harreman pertsonal egokiak izateko erarik egokiena dela jabetzea.- Jokaera asertiboak erabiltzeko teknikak ezagutzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none">- Komunikaziozko jokaera estiloak- Asertibitatea

METODOLOGIA

Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gimnasioa edo psikomotrizitate gela	Komunikazio estiloak bideoa (4min) https://www.youtube.com/watch?v=Os-Yfp4YXnI

Garapena:

Jokaera estiloak aztertzeko bideo bat ipiniko zaie. Ondoren, irakasleak hiru jokaera estiloak (pasiboa, agresiboa eta asertiboa) azalduko ditu eta bideoko pertsonaia bakoitzak zein estilo erabiltzen duen aztertuko da.



- Komunikazio jokaera pasiboa: Benetako emozio edo iritziak zuzen eta argi adierazteari uko egiten zaio eta besteei uzten zaie norberaren ekintzak zuzentzen eta erabakitzen.
- Komunikazio jokaera erasokorra: jokaera honetan, norberak bere eskubideei eusten die besteenak urratuz.

- Komunikazio jokaera asertiboa: norberaren sentimendu, uste eta iritzien adierazpen egokia da. Hau da, norberaren beharrak azaltzea eta norberaren eskubideak errespetuz defendatzea besteen eskubideak urratu gabe.

Ondoren, irakasleak klasea talde txikietan banatuko du. Talde bakoitzak egoera gatazkatsu bat asmatu eta rol-playinga egin beharko du komunikaziozko jokaera desberdinak erabiliz. Ikasleek zailtasunak badituzte egoerak asmatzeko, egoera errealak erabili daitezke edota adibide batzuekin lagundu. Adibideak:

1. Zure aurrean jesarrita dauden bi lagunak ez dira isiltzen eta zuk ezin duzu pelikula ikusi. Biengana hurbildu eta pelikula entzutea ezinezkoa zaizula esan beharko diezu.
2. Zure taldeko lagunak klaseko bati barre egiten hasi dira. Zuk ere adarjotzean parte hartzen ari zara, nahiz eta zure lagunak egiten ari direnarekin ados ez zauden.
3. Zure gelakideak bere gauzekin betetzen du zure mahaia eta leku gutxi uzten dizu lan egiteko.

Ondoren, rol-playinga egin beharko dute eta gainerako ikasleek zein jokaera erabiltzen duten antzeman beharko dute.

Amaitzeko galdera hauek egingo zaizkie:

- Nola sentitu zarete bakoitza bere rolean?
- Antzeztutako jokaerarekin identifikatu zarete?
- Zein dira egoera bakoitzean antzeztutako jokaera estiloen abantailak eta desabantailak? Zer da egiten zailena?

Oharrak:

Iritzi eta sentimendu negatiboak adierazteko teknikak:

- Atsegina izan ez den jokaerara edo iritzira mugatu eta horien jatorrian dagoen pertsona bereizi.
- Esan beharrekoa argi, luzatu gabe eta errepikarik gabe esan.
- Lehen pertsonan hitz egin (ez goitik behera) eta ez orokortu.
- Behar denean, besteen jokaeraren aldaketa eskatu.


Kritikak egiteko norabideak:

- Egiten den kritika ondo pentsatua eta zehatza izan behar da.
- Errespetuz eta bestea mindu gabe.
- Kritika egiten hasteko, "Nire ustez... nire iritziz..." bezalako formulak erabili.

Kritikak onartzeko ala ukatzeko norabideak:

- Kritika zuzena bada, zalantzarik gabe onartu.
- Kritika okerra bada, zalantzarik gabe ukatu, bestea mindu gabe.

<ul style="list-style-type: none"> - Ez erantzun kritika batez besteari. - Ahotsa kontrolatu, garrasirik ez baina ezta ahots ahulegia ere. - Solaskideari begiratu. - Gorputzaren postura erlaxatua mantenduz.
<p>Bibliografia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Rol -playing dinamika: Gizagune Fundazioa (d.g.) Eskolabakegune 2 <i>Unitate didaktikoa elkargunea. Lehen Hezkuntzako Bigarren zikloa.</i> - Oharrak: Eusko jaurlaritza. <i>Heziberri 2020. Oinarrizko zehar konpetentziak eskuratzeko prozeduren eta jarreraren artxiboa.</i>

5. SAIOA:		Entzuten al didazu?	
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entzute aktiboa eta enpatia zer den ulertzea - Entzute aktiboa eta enpatia besteak ondo ulertzeko erarik egokiena dela jabetzea - Entzute aktiboa eta behatzeko teknikak lantzea 		
Edukiak	- Entzute aktiboa / enpatia		
METODOLOGIA			
Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gela	(Ez da materialik behar)
Garapena:			
<p>Bikoteak eratzen dira eta bikote bakoitzeko ikasle bat gelatik ateratzeko esango zaie, horrela klase erdia kanpoan egongo da eta beste erdia barruan. Irakaslea kanpora aterako da eta kanpoan dauden ikasleei izan duten gatazka bat gogoratzeko eskatuko die, edo gogoratzen ez badute asmatzeko aukera dagoela ere esango zaie. Pentsatu ondoren, bakoitzak bere bikoteari kontatuko diola azalduko zaie. Argi utzi behar da, rolean sartu behar direla eta beraientzat oso garrantzitsua dela euren bikoteari gatazka hori kontatzea. Bizi izandako egoera, sentimenduak, ondorioak etab. azaldu beharko dizkiete. Seriotasun osoz eta garrantzi handiz kontatu beharko dituzte.</p>			
<p>Kanpoko ikasleak zer kontatuko duten pentsatzen dauden bitartean, irakaslea barrura sartu eta barruan dauden ikasleei hurrengoa esango die: “Kanpoko ikasleek beraientzat oso garrantzitsua den gatazka bat kontatuko dizuete, baina zuek bost axola zaizuelaren plantak egingo</p>			
			

dituzue. Eta nola egin dezakezue hori?” Ikasleak erantzunak ematen dituzte eta irakasleak lagundu dezake: “Hori da, solaskideari aurpegira ez begiratu; zuen arropa, kutxatila, koadernoren bat edo besterik gabe ingurura begiratzen egon; aspertzen ari zaretelaren keinuak egin; aharrausi egin; erlojua begiratu; noizean behin solaskideari moztu eta zure konturen bat komentatu; ondokoari zeozer galdetu... baina naturaltasunez, solaskideak ez du konturatu behar antzezten ari zaretela”.

Ondoren, ikasleak sartu eta solasaldia aurrera doan bitartean edo ostean, gatazka kontatzen dauden ikasleek ez daudela batere eroso antzeman egingo da. Irakasleak nahi beste luzatu dezake ariketa eta amaitzean hausnarketa bultzatuko du:

- Zer gertatu da? Nola sentitu zirate?
- Zuek ere horrelako jarrerak izaten dituzue?
- Zer egin dezakegu solaskidea arretaz entzuteko eta ulertzen saiatzeko?

Ondoren, jokaera asertiboa praktikan jartzeko “Esandakoa berresten” dinamika egingo da. Horretarako, klasea hiruko taldeetan banatuko da (parte hartzaileak A, B eta C izango dira). A-k kontakizun bat azalduko du; B-k A-k esandakoa errepikatu beharko du, esanahia batere aldatu gabe eta ahalik eta xehetasun handienarekin. A-k “ados” edo “zuzena” hitzak erabiliko ditu B-k mezua ongi jaso duela berresteko, edo errefusatu egingo du “ez da zuzena” edo “ez” esanez. C-k behaketa lanak egingo ditu. Ondoren, rola aldatuko dituzte.

Amaiera, behaketa lanetan egon direnak zer ikusi duten azalduko dute. Era berean, komentatu ahal izango dute nola sentitu diren rolen bakoitzean, zein zailtasun aurkitu dituzten, zer gustatu zaien gehien eta abar.

Oharrak:

Entzuteko eta behatzeko teknikak

- Solaskidean arreta jarri (arretaz entzun, hitza kendu gabe eta zerbait esateko gogoia sortzen bada hitz egiten bukatu arte itxaron).
- Interesa erakutsi (adeitsu begiratu, baina naturaltasunez; gorputzaren bidez errefortzu positiboak igorri: buruarekin baieztatu, irribarre egin...; hitzezko errefortzu positiboak igorri: bai..., eta..., benetan?...zer gehiago?..).
- Gorputz adierazpena behatu (gorputzaren adierazpenak: begiradak, eskuen mugimenduak, aurpegi keinuak...; eta esateko erak: tonua, abiadura, bolumena ...

arretaz behatu eta besteren emozioak identifikatzen eta portaerak interpretatzen saiatu).


Bibliografia:

- **Esandakoa berresten dinamika:** Gizagune Fundazioa (d.g.) Eskolabakegune 2 *Unitate didaktikoa elkargunea. Lehen Hezkuntzako Bigarren zikloa.*
- **Oharrak:** Eusko jaurlaritza *Heziberri 2020. Oinarrizko zehar konpetentziak eskuratzeko prozeduren eta jarreraren artxiboa.*

6. SAIOA:		Ikuspuntu desberdinak	
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bakoitzak dituen aurreiritzi, uste, balore, interes eta beharrianengatik egoerak ikuspuntu pertsonal batetik ikusten direla ohartzea. - Gertakari baten aurrean besteren azalpenak edo ikuspuntuak kontuan hartzearen garrantziaz jabetzea. 		
Edukiak	- Etzute aktiboa / enpatia		
METODOLOGIA			
Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gela	Bi ikuspuntu desberdineko irudia Ustezko otso maltzuraren ipuina

Garapena:

Klasea erdiari argazki bat erakutsiko zaie. Ozenean ezer ez komentatzeko argi utzi



behar da, soilik arretaz begiratzeko eskatuko zaie. Ondoren, beste klase erdiari argazki berdina erakutsiko zaie baina buelta emanda (oso garrantzitsua da ikasleek argazkiari buelta eman zaiola ez ohartzea eta naturaltasunez jokatzea)

Ondoren, irakasleak zer animali ikusi duten galdetuko die. Denek batera, bi animali desberdin ikusi dutela ohartuko dira. Eztabaida sortzen bada, eztabaida luzatu eta ikasleen jokaerak azter daitezke. Bestela, saioaren amaieran arrazoia nork daukan ikusiko dugula esango zaie eta aurrera jarraituko da.

Jarraian, Txanogorritxoren ipuina kontatuko da. Seguruenik ezagutzen dutela esango dute, eta konprobatzeko ipuina antzezteko eskatuko zaie. 5 boluntario (Txanogorritxo, ama, amona, otsoa eta ehiztaria) aterako dira eta Txanogorritxoren ipuina antzeztuko dute. Ondoren, irakasleak, berak ipuina beste modu batean dakiela esango du eta Ustezko otso maltzuraren bertsioa antzeztuko du beste 4 boluntarioen laguntzaz (Txanogorritxo, ama, amona eta ehiztaria). Otsoaren papera irakasleak egingo du eta ipuina otsoaren ikuspuntutik kontatuko du.



Amaieran, hausnarketa egingo da galdera hauek luzatuz:

- Otsoaren ikuspuntua ezagutzen zenuten?
- Otsoaren inguruan zeneuzkaten aurreiritziak aldatu dituzue?
- Otsoaren azalpenak entzun eta gero, txarra dela jarraitzen duzue pentsatzen?
- Gatazka egoeretan ere onak eta txarrak daudela uste duzue?
- Izan daiteke alde biek arrazoia izatea?

Hausnarketa amaitzeko hasierako argazkia erakutsiko zaie berriro eta denek zuzen zeudela ikusiko dute, ikuspuntu kontua baitzen asuntua eta besteen ikuspuntua ezagutu ondoren dena hobeto ulertzen dela ikusiko dute.

Oharrak:

- Gatazkak aztertzean, pertsona bakoitzak ikuspuntu (nahi, interes, behar...) desberdinak ditu eta horiek kontuan izatea beharrezkoa da gatazka bera ondo ulertzeko. Askotan, ez dago ona edo gaiztoa, arrazoia daukana edo ez daukana. Askotan ikuspuntu desberdinak baino ez dira eta ikuspuntu guztiak ulertuz soilik lor daiteke ikuspuntu globala. (Argazkiarekin bezala, ikasle guztiak zuzen zeuden eta animalia desberdinak ikusten zituzten)
- Era berean, aurretiko esperientziak egoera bat ulertzeko moduan eragiten dute. Pentsamenduek gure portaeran dute eragina, eta gure portaerak, aldiz, inguruko pertsonen portaeran (otsoarekin gertatu zen bezala, guztiak uste zenuten txarra zela. Aurreiritziekin kontuz ibili behar da).

Bibliografia:

- **Ustezko otso maltzuraren ipuina:** Bakeola.
<http://www.bakelan.net/zarautz/gestion/archivos/KOMUNIKATZEN%20IKASTEN%20DUGU.pdf>


7. SAIOA:	Laukiak eraiki
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entzute aktiboa garatzea. - Besteen iritzi, ideia eta ikuspuntuak lagungarriak eta osagarrikoak direla ikustea. - Kooperazioan aritzeak emaitza hobeak lortzeko aukera ematen digula ohartaraztea.
Edukiak	- Kooperazioa

METODOLOGIA

Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gela	Lauki zatiak

Garapena:

Aldez aurretik, irakasleak talde bakoitzeko bost sobre prestatu beharko ditu, bost laukiren pieza zatiak barruan sartuz, nahi dituen moduan, sobre batzuetan besteetan baino gehiago egon daitezke, izan daiteke baten bat hutsik egotea ere.



Ariketa egiteko, klasea talde txikietan banatuko da, 6 kideko taldeak sortuz. Talde bakoitzean kide bat behatzaile eta dinamizatzaile lanak egingo ditu. Gainerako kide bakoitzak lauki bat osatu beharko du. Irakasleak ikasle bakoitzari sobre bat emango dio eta azalpenak emango ditu: “Sobre bakoitzean pieza batzuk daude. Nik esandakoan, sobretik atera eta mahai gainean jarriko dituzue. Bakoitzak lauki bat osatu beharko du. Jarduera ez da amaitutzat emango, taldekide bakoitzak bere laukia osatuta eduki arte.”

Laukiak osatzeko honako arau hauek egongo dira:


- Ezin da piezarik eskatu
- Ez hitz egin (hitzik gabeko komunikazioa ere ez)
- Ezin da indibidualtasunean lan egin.

<ul style="list-style-type: none"> - Piezak eskatu daitezke. - Besteen laukiak nola doazen behatu. - Talde lanean aritu. <p>Behatzaile ardura daukan ikasleak soilik gelditu dezake jolasa nahi duen bakoitzean eta nahi dituen arauak ezarri ahal izango ditu. Hori bai, ezingo du inor lagundu.</p> <p>Jolasa amaitzean, irakasleak talde handian hausnarketa bultzatuko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete? - Gatazkarik izan duzue? Nola konpondu duzue? - Zein izan da bakoitzaren jokaera? - Nola moldatu zarete talde lanean? Denok berdin parte hartu al duzue?
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Behatzaile rola daukan kideak, oharrak har ditzake: aurreko saioetan ikusitakoaren inguruan: kideen jokaerak, komunikazioaren garrantzia, bakoitzaren ikuspuntu desberdinak kontuan hartzen diren edo ez...
<p>Bibliografia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laukiak eraiki dinamika: Perez, G. eta Perez, M. (2011). <i>Aprender a Convivir. El conflicto como oportunidad de crecimiento</i>. Madrid: Narcea (91orr.)

8. SAIOA:	Denon artean askoz hobe		
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entzute aktiboa garatzea. - Besteen iritzi, ideia eta ikuspuntuak lagungarriak eta osagarritzkoak direla ikustea. - Kooperazioan aritzeak emaitza hobeak lortzeko aukera ematen digula ohartaraztea. 		
Edukiak	- Kooperazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak LH-4	Denbora 60 min	Espazioa Gela	Baliabideak eta IKT tresnak Lasterkarien pista zatiak (2.2. baliabidea) Lurralde urdina kontakizuna
Garapena:			

Aurreko saioetan ikusitakoa praktikan jartzeko bi dinamikak proposatuko zaizkie. Lehengoa, “Munduko lasterketa” eta bigarrena “Lurralde urdina” kontakizuna.

Munduko lasterketa dinamika egiteko, lehenik eta behin klasea taldeetan banatuko da eta herrialde desberdinetako korrikalariak direla esango zaie. Talde bakoitzeko partaide bakoitzari pista zati bat emango zaio. Eta denen artean, korrikalari bakoitza zein herrialdekoa den, zein postuan dagoen eta zein koloretako petoa daukan jakin beharko dute.



Amaitzean hausnarketa egingo da: Nola antolatu da taldea? Guztiok elkarri aditu al diozue? Zer egin duzue denek batera ez hitz egiteko? Liderren bat sortu al da? Norbaiten informazioa alde batera utzi al duzue? Pista guztiak kontuan ez hartzeagatik erantzun okerren bat eman al duzue? Besteen informazioari kasu egin al diozue, edo bakoitzak norberaren pistetan jarri du arreta?


Ondoren, irakasleak “Lurralde urdina” testua hasiko da irakurtzen. Amaitu ostean, gogoratzen dituzten animaliak orri batean apuntatzeko eskatuko zaie. Ostean, talde txikietan (4-5 kide) elkartu eta zerrenda osatuko dute. Amaitzeko, talde handian zerrenda osatuko da eta ondorioak aterako dira: zenbat animalia zerrendatu dituzue hasieran? Eta taldean? Nola lortu dituzue emaitza hobeak banaka edo taldeka?

Oharrak:

- Lurralde urdina testua oso luzea izan daiteke, denbora eta ikasleen ezaugarrien arabera egokitu daiteke eta zati bat bakarrik irakurri.
- Entzute aktiboaren garrantziaz jabetzeko, irakasleak behin baino ez du esango Lurralde urdinaren testua irakurtzen hasiko dela. Ikasleren bat despistaturik badago, ondorioa eta ikaskuntza esanguratsuagoa izango da.

Bibliografia:

- **Munduko lasterketa dinamika:** nik asmatua.
- **Lurralde Urdina testua:** Pujolas, P. eta Lago, J. (d.g.) *PAK: IK/KI programa («Ikasteko kooperatu / Kooperatzen ikasi»)* taldean ikasten irakasteko. Bartzelona: Vic-eko unibertsitatea.

9. SAIOA: Elkar laguntzen			
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen barnean laguntza eta lankidetzako harremanak garatzea. - Talde barneko komunikazioa indartzea. - Kooperazioan aritzeak emaitza hobeak lortzeko aukera ematen digula ohartaraztea. 		
Edukiak	Kooperazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak LH-4	Denbora 60 min	Espazioa Patioa edo gimnasioa	Baliabideak eta IKT tresnak Arroz poltsak edo koadernoak <i>Crazy carrot</i> bideoa (youtube, 4 min) https://www.youtube.com/watch?v=ABYYQ4vJpis
Garapena:			
<p>Ikasle guztiek, talde bakarra osatuko dute eta ilaran ipiniko dira. Ikasle bakoitzak buruan arroz poltsa bat (aldez aurretik prestatutakoa) edo koaderno bat izango du eta hau ukitu gabe orekan mantenduz joan eta etorri egin beharko dute. Ikasleren bati buruan daramana erortzen baldin bazaio, ezingo du norberak berea hartu, bere atzetik doan bati laguntza eskatu eta beste kide batek berriro buru gainean jarri beharko dio. Oso garrantzitsua da arau hau azpimarratzea, atzekoek bakarrik lagundu dezaketela, aurrean daudenek ezin baitute atzera egin.</p>			
			
<p>Helburua denok batera ahalik eta denbora gutxienean heltzea izango da.</p>			
<p>Dinamika ostean borobilean bildu eta hausnarketa egingo da:</p>			
<ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete? - Zein izan da bakoitzaren jarrera? (indibidualista, norgehiagoka, laguntzailea, axolagabea, kooperatiboa...) - Talde komunikazioa egon al da? - Estrategiaren bat sortu al duzue? Zein izan da emaitza hobeak lortzeko estrategia? - Gainerako taldekideen laguntzarekin gustura sentitu al zarete? - Gustuko izan al duzue jolasa? Zer ikasi duzue jolas honen bidez? 			

Oharrak:

Irakasleak ikasleen jokaerak azter ditzake, baina euren artean antolatzen eta euren kabuz erabakiak hartzeko aukera utzi behar die. Zirikatze lanak egin ditzake helburua lortzen ez dutela ikusten badu.

Denbora gehiago izatekotan “*Crazy carrot*” bideoa ikusi daiteke elkarren arteko kooperazioak dakartzan onurak azpimarratzeko. Bertan bi gizon, norgehiagoka ari dira helburu berdinarekin atzetik. Azkenean ez bata ez besteak ez du helburua lortzen. Eta kooperazioan aritu izan balira?

Bibliografia:

- **Jolas kooperatibo herrikoia** (Autore ezezaguna)
- **Bideoa:** Dylan Van Wormen eta Logan Escelina (2011) *Crazy Carrot*.

10. SAIOA:		Laranja antidotoa	
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazkan parte hartzen dutenen interesak aztertzea. - Negoziazioan jokaerak eta komunikazioak duen garrantziari buruzko gogoeta egitea. 		
Edukiak	- Negoziazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak LH-4	Denbora 60 min	Espazioa Gela	Baliabideak eta IKT tresnak Laranja antidotoa: A eta B testuak (2.3. baliabidea)
Garapena:			
<p>Irakasleak bi boluntario eskatuko ditu eta gelatik irteteko esango die. Ondoren, gelaren erdian mahai bat jarriko du, eta mahaiaren alde banatan bi aulki. Mahaiaren erdian laranja bat jarriko du eta aulki bakoitzaren aurrean testu bakoitzaren fotokopia.</p> <p>Irakasleak gainerako ikasleei egoeraren berri emango die: hondamendi nuklearra gertatu da eta bi ikasle hauek bizirik irten dira. Biak laranja osoa behar dute batek bere ama salbatzeko eta besteak bere semearen bizitza salbatzeko, laranjarekin antidoto bat prestatu behar baitute. Kontua da, batek azala behar duela eta besteak mamia.</p>			

Irakasleak taldeari eskatuko dio ikasleek erabiltzen duten jokaera eta komunikazio estratergiei erreparatzea eta gatazka konpontzea lortzen duten ala ez aztertzea.



Boluntarioak gelara itzultzean, bakoitza mahaiaren alde batean eseriko da. Irakasleak aurrean duten testua irakurtzeko eskatuko die, bertan egoera bat azaltzen dela esango die eta irakurtzen amaitu bezain pronto, egin beharrekoak egiteko eskatuko zaie. Ikasleek ez dakite paper bakoitzean testu desberdina dagoela eta biak laranja osoa behar dutelaren susmoa izango dute. Hor sortuko da gatazka eta nola kudeatzen duten behatu behar da, hau da, liskarrik dagoen, tirabirak dauden, pentsatzeko denbora hartzen duten, elkarrizketa erabiltzen duten adostasunak lortzeko... Gainerako ikasleek ikusle moduan parte hartuko dute, dinamika arretaz eta isilean aztertuz.

Ondoren talde handian hausnarketa egingo da:

Boluntarioak nola sentitu dira? Nolakoa izan da haien arteko komunikazioa? Elkarri entzun al diote? Alderdiak beren interesak eta premiak azaldu al dituzte? Zein argudio erabili dira gatazka konpontzeko? Nolakoak ziren jokalarien keinuak eta ahots-tonua elkarrekin hitz egitean? Zer-nolako konponbideak aurkitu dituzte? Zein ondorio izango dituzte konponbide horiek? Beste konponbiderik proposatu al da?

Oharrak:

- Dinamika nahi beste alditan errepikatu daiteke, baina horretarako, aldeztu aurretik ikasle boluntario gehiago atera beharko dira kanpora.
- Ikasleen interesen arabera, gaia moldatu daiteke eta antidotoa azterketak gainditzeko, oportunitate bultzeko, gustuko duten jostailua lortzeko... izan daiteke.

Bibliografia:

- **Laranja antidotoa dinamika:** Bakeola. *Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzarako baliabideak*. 2019ko martxoaren 25ean berreskuratua, <http://www.bakelan.net/>

11. SAIOA:	Autobus matxuratua
Helburu didaktikoak	- Adostasunak bilatzen ikastea, guztien gustukoa den aukera bilatzen ahaleginduz.

	- Taldean hartutako erabakiak banaka hartutako erabakiekin alderatzea
Edukiak	- Negoziazioa

METODOLOGIA

Hartzaileak LH-4	Denbora 60 min	Espazioa Gela	Baliabideak eta IKT tresnak Egoeraren azalpena eta objektu zerrenda (2.4. baliabidea)
----------------------------	--------------------------	-------------------------	---

Garapena:

Irakasleak egoera azalduko die ikasleei: Neska-mutil talde batek irteera bat egin du, baina, zoritxarrez, autobusak matxura izan du eta ezin izan du aurrera jarraitu.

Autobusa matxuratu den inguru horretatik ez da ia inoiz inor pasatzen eta bost boluntariok gertuen dagoen herriraino joango dira eta laguntza eskatuko dute. Bidaia egiteko, autobusean dauden bost objektu baino ezingo dituzte motxilan eraman.



Jarraian, irakasleak objektuen zerrenda eman eta bakoitzak eramango lituzketen bost objektuak koadernoan apuntatuko ditu. Ondoren, lau laguneko taldeetan bakoitzak hautatutako objektuak azalduko ditu eta taldean aukeraketa bakarra egin beharko dute.

Saioa amaitzeko, hausnarketa egingo da:

- Denek parte hartu al dute talde-lanean? Egon al da gehiegi parte hartu duenik?
- Egon al da taldeko gainerako kideen parte-hartzea oztopatu duenik?
- Guztiok batera hitz egiten zenuten? Denek entzuten zuten hizketan ari zena?
- Zer sistema erabili duzue erabakiak hartzeko? Egon al da iritzia inposatu duenik?
- Harreman ona egon al da taldeko kide guztien artean?
- Pozik al zaudete egindako lanarekin? Lortu al dituzue aurreikusitako helburuak?
- Zer zailtasun izan dituzue? Nola konpondu dituzue?

Oharrak:

Adostasuna lortzeko gogoan izan honako hauek:

- Ez inposatu iritzi pertsonalik.
- Aukeraketa arrazoitu behar duzue.

- Gainerakoen iritziak errespetatu behar dituzue. Probetxuzko ekarpenak direla pentsatu behar duzue.
- Ez eman arrazoa gainerakoei eztabaidak saiheste aldera, besteen ekarpena zuzena delakoan egon behar duzue onartu baino lehen.

Bibliografia:

- **Autobus matxuratua dinamika:** Pujolas, P. eta Lago, J. (d.g.) *PAK: IK/KI programa («Ikasteko kooperatu / Kooperatzen ikasi»)* taldean ikasten irakasteko. Bartzelona: Vic-eko unibertsitatea.

12. SAIOA:	Nora goaz?		
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adostasunak bilatzen ikastea, guztien gustukoa den aukera bilatzen ahaleginduz. - Adostasunak lortzeko ideia jasa teknika erabiltzea. 		
Edukiak	- Negoziazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak	Denbora	Espazioa	Baliabideak eta IKT tresnak
LH-4	60 min	Gela	(Ez da materialik behar)
Garapena:			
<p>Gelako ikasleak bi taldetan banatuko dira (garrantzitsua da taldekide kopuru bera izatea, horrela ez dute bozketarako aukerarik izango eta ez dute gehiengoak nahi duena egingo). Ondoren, irakasleak egoera hau planteatuko die: Ikasturtea amaitu berri da eta tutoreak ikasturte amaierako txango bat egiteko proposamena egin die. Urte osoan gogor lan egin dutenez, ikasleek nora joan nahi duten aukeratzeko aukera izango dute.</p> <p>Talde batek hondartzara joan nahiko du (hondartza zehaztu gabe); izan ere, uda badator eta gogo handia dute lehenengo aldiz hondartzara joateko. Beste taldeak planetariora joan nahi du, pasa den urtean 4. mailakoak joan zirelako eta oso ondo pasa zutelako. Urte osoa daramate irakasleari esaten joan nahi dutela eta ikasturte amaieran joan ahal izatea espero zuten.</p>			



Taldeetan, hondartzara edo planetariora joateko arrazioak pentsatuko dituzte. Komenigarria da talde bakoitzean ardurak banatzea (idazkaria, bozeramailea...) Ondoren, talde bien ideia-jasa egingo da. Taldekide guztiek, euren

nahia eta interesa defendatzeko arrazoiak eta argumentuak emango dituzte eta arbelean idatziko dira. Ideiak elkarren artean lotuz multzotan antolatu eta ahal bada ideiak osatuz joango dira eta amaieran erabaki bat hartu beharko dute.



Dinamika amaitutzat ematen denean hausnarketa egingo da:

- Adostasun batera iritsi al zarete? Nola?
- Zerk laguntzen du adostasunera iristen? Zerk sortzen ditu eragozpenak?
- Zein jokaera hartu du pertsonaia bakoitzak?

Adostasunera iritsi ezkerro:

- Hartutako erabakiek denen interesak kontutan hartzen al dituzte?
- Garaile ateratzen denik ba al dago? Eta galtzailerik?
- Erabilgarria iruditzen al zaizue teknika hau adostasunak bilatzeko?

Oharrak:

Adostasuna lortzeko norabideak:

- Ez inposatu iritzi pertsonalik.
- Aukeraketa arrazoitu behar duzue.
- Gainerakoen iritziak errespetatu behar dituzue. Probetxuzko ekarpenak direla pentsatu behar duzue.
- Ez onartu gainerakoen iritziak eztabaidak saiheste arren, besteen ekarpena zuzena delakoan egon behar duzue onartu baino lehen.

Bibliografia:

- **Nora goaz? dinamika:** Gizagune Fundazioa (d.g.) Eskolabakegune. *2 Unitate didaktikoa elkargunea. Lehen Hezkuntzako Bigarren zikloa.*
- **Oharrak:** Eusko jaurlaritzaren. *Heziberri 2020. Oinarrizko zehar konpetentziak eskuratzeko prozeduren eta jarreraren artxiboa.* Hezkuntza saila.

13. SAIOA: Itxiera			
Helburu didaktikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen iritzi eta hausnarketa aniztasunak taldeari egiten dizkion ekarpenaz jabetzea. - Talde sentimendua sustatzea. - Esku hartzean bizitako esperientzien eta ikasitakoaren gaineko gogoeta egitea. 		
Edukiak	- Talde-kohesioa / autoebaluazioa		
METODOLOGIA			
Hartzaileak LH-4	Denbora 60 min	Espazioa Gela	Baliabideak eta IKT tresnak Puzzle zatiak (irakasleak sortu beharrekoak) Ebaluazio galdetegi (3. eranskina)
Garapena:			
<p>Irakasleak esku hartze saioetan ateratako argazkiz eta irudi esanguratsuetaz baliatuz, irudi handi bat sortuko du eta puzzle pieza zatietan moztuko du.</p> <p>Saio hasieran puzzlea klase erdian ipiniko du eta ikasleak puzzlearen inguruan borobil bat osatuz eseriko dira. Puzzlean ikusten dituzten irudiak eta puzzleak zer irudikatzen duen komentatu dezakete. Ondoren, ebaluazioa egiteko, ikasle bakoitza banan-banan altxatu egingo da eta pieza bat hartuko du hausnarketa pertsonal txikitxo batekin: esku hartzean egindako momenturen bat gogora ekarriz, gehien gustatu zaiona komentatuz, esku hartze honek egin dizkion ekarpenak aipatuz eta taldearen ezaugarri positibo bat adieraziz. Amaitzean, bakoitzak pieza bat izango du berarentzako oroitzapen modura, eta berriro ere, pieza bakoitzak zer adierazten duen azaldu daiteke dinamikari itxiera manez.</p> <p>Amaieran, galdetegi bat emango zaie ikasleei esku hartzearen balorazioa eta euren auto-ebaluazioa egin dezaten.</p>			
Oharrak:			
<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera esku hartzean parte hartu duten guztiek egin dezakete, ikasle zein irakasleak. Horretarako, kontuan izan behar da puzzlearen pieza kopurua, dauden partaide bezain beste egon behar baitute. 			
Bibliografia:			
<ul style="list-style-type: none"> - (Ez da erabili) 			

2.1.Baliabidea: Ustezko otso maltzurra

Basoa nire etxea zen.. Han bizi nintzen ni, gustura bizi ere. Dena txukun eta garbi mantentzen saiatzen nintzen. Baina, behin batean... Egun eguzkitsu batean, txangozale batzuek utzitako zaborrak batzen ari nintzela, pauso batzuk sentitu nituen. Zuhaitz baten atzean ezkutatu, eta oso janzkera bitxia zeraman neskato bat ikusi nuen hurbiltzen. Den-dena gorritz jantzita zihoan. Eta noski, ikertzeari ekin nion. Ea nor zen galdetu nion, nora zihoan, non bizi zen, etab.

Eta dantza eta kantuen artean, amonaren etxera zihoala erantzun zidan, hamaiketarako otzara eskuan. Pertsona jatorra ematen zuen, baina NEURE basoan zegoen eta, egia esan, arropa arraro harekin soinean, susmagarria iruditu zitzaidan. Beraz, txantxa txiki bat egitea bururatu zitzaidan, aurretiaz abisatu gabe, basoan sartzeak zer nolako arriskuak zekartzan jakin zezan. Bere bidea jarraitzea utzi nion, baina bere amonaren etxera korrika egin nuen, ziztu bizian. Hara heldu nintzenean, han zegoen amonatxo maitagarria; txantxaren berri eman nion, eta gustura asko onartu zuen. Nik abisua eman arte ezkutatuta egoteko prest zegoen. Eta ohepean ezkutatu zuen bere burua.

Neskatoa iristean, logelara sartzeko gonbit egin nion; han nintzen ni, ohean etzanda, amonatxoaren arropak soinean. Kolore gorriekin heldu zen neskatilea, eta ez dakit zer esan zuen nire belarriak zirela eta, desatsegina. Inoiz egin izan didate isekarik eta, beraz, berarekin adeitsuaz izaten ahalegindu nintzen. Bera hobeto entzuteko nituela hain belarri handiak, erantzun nion.

Gogoko nuen neskato hura, eta adi-adi entzuten nuen hark esandakoa; hala ere, berriro iraindu ninduen, ederki iraindu ere nire begi irtenak zirela eta. Ulertuko duzuen bezala, txarto sentiarazi ninduen horrek; neskatoak itxura atsegina bazuen ere, oso zakarra zen nirekin. Hala ere, atsegin izaten jarraitu, eta bera hobeto ikusteko nituela hain begi handiak esan nion.

Baina berriz iraindu ninduen eta horrek sutan jarri ninduen. Beti izan ditut arazoak nire hagin handiekin, baina neskato hark oso gauza itsusia bota zidan. Badakit neure burua kontrolatu behar izan nuela, baina ohetik jauzi egin eta sekulako orroa bota nuen, haginak erakutsiz; bera gustura asko jateko zirela esan nion.

Orain, izan gaitezen serioak; ez da neskato bat irensteko gai den inongo otsorik. Mundu guztiak daki hori, baina neskatoa korrika eta garrasika hasi zen, hara eta hona ; neuk ere halaxe egiten nuen, bera lasaitzeko asmoz. Amonaren arropak oraindik aldean nituen, kendu egin nituen, baina okerrerako zen; bat-batean, atea ireki, eta egurgile bat azaldu zen, aizkora izugarri bat eskuan zuela. Berari so egin bezain laster ulertu nuen arriskuan nintzela; beraz, leihotik salto egin eta ihes egitea lortu nuen.

Gustura asko esango nizueke haxe dela ipuinaren amaiera, baina, tamalez, ez da horrela; izan ere, amonatxoak ez zuen sekula nire istorioa egiaz gertatu zen bezala kontatu. Laster asko hedatu zen berria, otso maltzurra nintzela, alegia. Eta harrezkero den-denak hasi ziren nigandik iheska. Ez dakit zer den neskato zatar eta arraro hartaz, baina, egun hartaz geroztik, nik neuk ezin izan dut ondo lo egin...

2.2.Baliabidea. Mundu lasterketa pista zatiak

<p>Filipinar korrikalaria, peto gorria eta peto arrosa daukaten korrikalarien tartean doa eta Boliviatar korrikalariaren aurretik.</p>
<p>Senegaldar korrikalaria lehenengoa doa eta errumaniar korrikalaria bere atzetik doa.</p>
<p>Kolonbiar korrikalariaren atzetik ez doa inor eta peto beltza daukan korrikalariaren atzetik doa.</p>
<p>Peto beltza daramana brasildarra da eta peto horiaren daraman korrikalariaren atzetik doa.</p>
<p>Senegaldar korrikalariaren aurretik ez do inor eta atzetik doan korrikalaria peto berdea du.</p>
<p>Indonesiar korrikalaria 6. postuan doa. Bi postu aurrerago peto laranja daukan korrikalaria doa eta bi postu atzerago peto morea daukan korrikalaria.</p>
<p>Peto berdea daukan korrikalariaren atzetik ginear korrikalaria doa eta aurretik peto urdina daukan korrikalaria.</p>
<p>Boliviatar korrikalaria 5. Postuan doa eta brasildar korrikalaria 7. postuan.</p>
<p>Boliviatar korrikalariaren petoa arrosa da eta 5. postuan doa.</p>

2.3. Baliabidea. Laranja antidotoa

A Testua

Azkenik, askok profetizatu zuten bezala, hondamendi nuklearra gertatu da. “Hurrengo egun” beldurgarria iritsi da. Janari guztia kutsatuta dago, hiri guztiak birrinduta, eta ezarritako ordena hankaz gora. Zu eta zeureak salbatu egin zarete, baina zure semea hiltzeko zorian dago. Hura salba dezakeen gauza bakarra aurrean duzun laranja da. Lehenbailehen bizitza salbatu behar diozu. Laranjaren azaletik ahalik eta antidoto gehien atera behar duzu, eta laranjaren erdia bakarrik erabiltzen baduzu, antidotoak ez du eraginik izango. Baina ez zara laranjaren bila dabilen pertsona bakarra. Semea salbatzeko, zure ahozko trebetasun guztia erabili beharko duzu.

B Testua

Azkenik, askok profetizatu zuten bezala, hondamendi nuklearra gertatu da. “Hurrengo egun” beldurgarria iritsi da. Janari guztia kutsatuta dago, hiri guztiak birrinduta, eta ezarritako ordena hankaz gora. Zu eta zeureak salbatu egin zarete, baina zure bikotekidea hiltzeko zorian dago. Hura salba dezakeen gauza bakarra aurrean duzun laranja da. Lehenbailehen bizitza salbatu behar diozu. Laranjaren mamitik ahalik eta antidoto gehien atera behar duzu, eta laranjaren erdia bakarrik erabiltzen baduzu, antidotoak ez du eraginik izango. Baina ez zara laranjaren bila dabilen pertsona bakarra. Bikotekidea salbatzeko, zure ahozko trebetasun guztia erabili beharko duzu.

2.4. Baliabidea. Autobus matxuratua

Egoera (ikasleei irakurtzeko testua):

«Ikasle talde batek ikastetxeak antolatutako ikasturte amaierako irteera bat egin du Pila mendilerroko herriak bisitatzeko. Egun zoragarria atera da irteera egiteko baina, zoritxarrez, autobusak matxura izan du bi herriren artean eta ezin izan du aurrera jarraitu. Autobusa matxuratu den inguru horretatik ez da ia inoiz inor pasatzen, eta ezin da mugikorraren bidez laguntzarik eskatu, ez baitago estaldurarik. Hori dela eta, premiazko neurri bat hartu dute: bi boluntariok oinez egingo dute hamar kilometroko tartea gertuen dagoen herriraino eta laguntza eskatuko dute. Baina orain beste arazo bat sortuko da, boluntarioek objektu eta hornidura jakinak beharko dituzte herrira iristeko. Autobusa ikasleek irteerarako eramandako gauzaz beteta dago. Gauza horien artean, bada, gertuen dagoen herrira iristea errazago egingo diguten bost hautatu behar ditugu».

Autobusean dauden objektuak

1. Erlojuak
2. Urez betetako kantinplora
3. Berokiak
4. Eguzkitik babesteko txapelak
5. Telefono mugikorrak
6. Inguruko mapa bat
7. Janariz betetako ontziak
8. Botikin bat
9. Bideo-joko kontsola eramangarri bat
10. Linternak
11. Bozgorailua

Objektuen aukeraketa (eta justifikazioa)

1. UREZ BETETAKO KANTINPLORAK. (Hidratatzea beharrezkoa da.)
2. EGUZKITIK BABESTEKO TXAPELAK (Intsolaziorik izan ez dezagun.)
3. INGURUKO MAPA. (Gal ez gaitezen).
4. JANARIA. (Indarrak berritzeko eta ibilaldia egin ahal izateko.)
5. BOTIKINA. (Ezustekorik sortzen bada ere bidean.)

3.eranskina. Ebaluazio tresnak

3.1. Tresna: Erregistro orria

	Oso egoki egiten du.	Oinarrizkoa egiten du.	Desegoki edo ez du egiten.
Jarrera positiboa eta motibazioa erakusten du: arretaz entzuten ditu azalenak, galdera egokiak egiten ditu eta gogotsu egiten du lan.			
Aktiboki parte-hartzen du: ideiak, iritziak eta proposamenak partekatzen ditu, iniziatiba erakusten du eta jardueretan boluntario atera nahi du.			
Hitz egiteko eskua altxatzen du, txandak errespetatzen ditu eta errespetu osoz entzuten die besteei.			
Talde lanak dinamizatu eta bideratu egiten du.			
Esfortzu handia egiten du taldearen mesedetan eta besteak animatzen eta laguntzen ditu.			
Argudiatzeko gai da, arrazoi sendoak eta koherenteak ematen ditu.			
Pentsamendu kritiko eta sortzailea du: hausnarketa sakonak egiten ditu, erantzun originalak bilatu eta irtenbide berritzaile eta egingarriak proposatzen ditu.			
Harreman integratzaileak ditu: besteekiko errespetua erakusten du eta elkartasuna eta konfiantza- harremanak ezartzen ditu.			
Klaseko zein esku hartzean erabilitako materialak eta baliabideak egoki erabiltzen ditu.			

3.2. tresna. Ebaluazio errubrika

EBALUAZIOA IRIZPIDEAK		LORPEN ADIERAZLEAK		
		Oinarrizkoa	Tartekoa	Aurreratua
Emozioek duten garrantziaz jabetzea, eta indarguneen eta ahulezien kontzientzia barneratzea eta erregulatzea.	Emozioen autoezagutza	Ikasleak zailtasunak ditu eta laguntza handia behar du bere emozioak identifikatzeko, ulertzeko, baloratzeko eta adierazteko.	Ikasleak laguntzarekin bere emozioak identifikatzen, ulertzen, baloratzen eta adierazten ditu.	Ikasleak bere emozioak erraz identifikatzen, ulertzen, baloratzen eta adierazten ditu.
	Emozioen autorregulazioa	Ikasleak emozio bortitzei aurre egiteko eta bere burua lasaitzeko teknikak erabiltzeko zailtasunak ditu eta laguntza handia behar du.	Ikasleak emozio bortitzei aurre egiteko eta bere burua lasaitzeko teknikak erabiltzen ditu.	Ikasleak emozio bortitzei erraztasunez egiten die aurre emozio bortitzei eta bere burua lasaitzeko teknikak erabiltzen ditu.
Pertsonarteko komunikazioa bideratzeko prozedurak eta jarrerak eskuratzea, elkarrekin ondo bizitzeko asertibitatearen eta enpatiaren arteko orekan.	Asertibitatea	Sentitzen, pentsatzen eta egin nahi duena askatasunez eta besteekiko errespetuz adierazteko zailtasunak ditu.	Sentitzen, pentsatzen eta egin nahi duena askatasunez eta besteekiko errespetuz adierazten du, baina ez beti.	Sentitzen, pentsatzen eta egin nahi duena askatasunez eta besteekiko errespetuz adierazteko erraztasuna du.
	Entzute aktiboa / enpatia	Besteak zer pentsatzen, sentitzen eta esaten duena ondo ulertzeko asmoz, bestearen	Besteak zer pentsatzen, sentitzen eta esaten duena ondo ulertzeko asmoz, bestearen	Besteak zer pentsatzen, sentitzen eta esaten duena ondo ulertzeko asmoz, bestearen

		lekuan jartzeko eta arretaz entzuteko zailtasunak ditu	lekuan jartzen da eta arretaz entzuten du, baina ez beti.	lekuan jartzeko eta arretaz entzuteko erraztasuna du.
Eraginkorrak izateko eta taldekideen artean lotura afektibo sendoagoak errotzeko, lankidetzan aritzeko prozedurak eta jarrerak eskuratzea.	Kooperazioa	Beste kideen beharrak eta nahiak arretaz entzuteko eta besteen ekarpenekin bere ikuspuntua egokitzeko, eta bere ideiak moldatzeko zailtasunak izaten ditu sarritan.	Beste kideen beharrak eta nahiak arretaz entzuteko eta besteen ekarpenekin bere ikuspuntua egokitzeko, eta bere ideiak moldatzeko zailtasunak izaten ditu Batzuetan.	Beste kideen beharrak eta nahiak gehienetan arretaz entzuten ditu eta gai izaten da bere ikuspuntua egokitzeko eta bere ideiak moldatzeko besteen ekarpenekin.
		Ikaskide guztiak onartzeko eta ez inor baztertzeko, eta oztupoak dituztenean laguntzeko sarritan zailtasunak izaten ditu.	Ikaskide guztiak onartzeko eta ez inor baztertzeko, eta oztupoak dituztenean laguntzeko batzuetan zailtasunak izaten ditu.	Ikaskide guztiak onartzen ditu eta ez du inor baztertzen, eta zailtasunak dituztenean, laguntzeko prest egoten da.
Gatazkak elkarrizketa eta negoziazioaren bidez kudeatzeko prozedurak eta jarrerak eskuratzea	Negoziazioa	Gatazken aurrean adostasunerako bideak eskaintzeko eta elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez irtenbideak bilatzeko zailtasun handiak ditu.	Gatazken aurrean adostasunerako bideak eskaintzeko eta elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez irtenbideak bilatzeko zailtasunak izaten ditu batzuetan.	Gatazken aurrean adostasunerako bideak eskaintzeko eta elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez irtenbideak bilatzen saiatzen da.

3.3. Tresna. Auto-ebaluazio galdetegia

Zer da gehien gustatu zaizuna? Zergatik?

.....
.....

Eta gutxien gustatu zaizuna? Zergatik?

.....
.....

Zer aldatuko zenuke? (zerbait kendu, gehitu, zerbaitetan gehiago sakondu...)

.....
.....

Zure jokaera gatazken aurrean aldatu duzula nabaritzen duzu? Zertan?

.....
.....

Orain, gatazka gehiago, gutxiago ala kopuru berdina izaten duzula esango zenuke?

.....
.....

Zuen arteko harremana hobetu dela uste duzu? Zergatik?

.....
.....

Baliagarria iruditu zaizu egindako esku hartze hau?

.....
.....